

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2021

LEHENDAKARITZA

1. Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak (2021-2022)	2
2. 2021erako diru-laguntzak Euskal Etxeei eta Euskal Etxeen Federazioei.....	3
3. Kanpoko euskal gizataldeetako pertsonen laguntza-premiei eta premia larriko egoerei erantzuteko prestazio ekonomikoak 2021erako.....	5
4. Bazkide Estrategikoen Sareko kanpoko eskualdeekin lankidetzan teknikoan aritzeko proiektuetarako 2021-2022rako laguntzen deialdia	7



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka (2021-2022)

2.- Araua

12/2019 DEKRETUA, urtarrilaren 29koa, Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautzen dituena.(otsailaren 1eko, EHAA, 23. zk.)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

12/2019 DEKRETUA, urtarrilaren 29koa, Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautzen dituena.

EBAZPENA, 2021eko uztailaren 28koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, kanpo-harremanen arloan gazteak prestatzeko beken deialdia egiten duena 2021-2022 aldirako. (irailaren 1eko EHAA, 174. zk.)

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 16koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez beka esleitzen baitira, 2021-2022an kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko. (2022ko urtarrilaren 5eko EHAA, 3. zk.)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Beken helburua da beren karrera profesionala esparru horretan garatzeko ahalmena duten gazteei nazioarteko prestakuntza ematea, bereziki honako arlo hauetan: Europako Gaiak, Kanpo Harremanak eta Kanpoko Euskal Komunitatea.

2021-2022ko deialdietan 8 beka eskaini ziren, eta horietatik bik Bruselako Ordezkaritza zuten helmuga; gainerako kasuetan, berriz, Gasteizen osatuko zen prestakuntza.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Eskainitako 8 beketatik 6 bete ziren, eta Kanpoko Euskal Komunitatearen modalitateko biak hutsik geratu ziren, interesdunek ez baitzuten eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu.

Beken eragin soziala garrantzitsua da, batez ere graduko ikasketak egin berri dituztenentzat. Esperientzia berria da prestakuntzaren arloan, Eusko Jaurlaritzan edo Euskadik kanpoan dituen ordezkarietan edo haien mendeko bulegoetan gauzatzen baita.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Beka kopurua	8	6



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2021erako diru-laguntzak Euskal Etxeei eta Euskal Etxeen Federazioei

2.- Araua

50/2008 DEKRETUA, martxoaren 18koa, euskal etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena (*apirilaren 11ko EHAA, 69. zk.*)

175/2014 DEKRETUA, irailaren 9koa, Euskal Etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzeko Dekretua aldatzekoa (*irailaren 17ko EHAA, 176. zk.*)

186/2021 DEKRETUA, uztailaren 27koa, Euskal Etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzeko Dekretua bigarrenaz aldatzekoa (*abuztuaren 6ko EHAA, 156. zk.*)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 19koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita 2019an euskal etxeei emango zaizkien diru-laguntzetarako.

EBAZPENA, 2019ko irailaren 19koa, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariarena, zeinaren bidez euskal etxeei ematen baitzaizkie 2019. urteko dirulaguntzak.

186/2021 DEKRETUA, uztailaren 27koa, zeinaren bidez bigarrenaz aldatzen baita Euskal Etxeentzako dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duen dekretua.

EBAZPENA, 2021eko abuztuaren 6koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, 2021en euskal etxeei emango zaizkien dirulaguntzetara biltzeko deia egiten duena. (*abuztuaren 10eko EHAA, 158. zk.*)

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 15koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, 2021. urtean Euskal Etxeei eman zaizkien dirulaguntzen berri ematen duena. (*abenduaren 29ko EHAA, 260. zk.*)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horien helburua da zentroen baldintzak hobetzen laguntzen duten gastuak eta jarduerak osorik edo zati batean finantzatzea, edo kanpoko euskal gizataldeen, haien harrera-herrialdeen eta Euskadiren arteko gizarte-, ekonomia- eta kultura-loturak sustatzea eta indartzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Argentina, Australia, Belgika, Brasil, Kanada, Kolonbia, Kuba, Txile, Txina, Espainia, Frantzia, Peru, Erresuma Batua, Uruguai, AEB eta Venezuelako 58 euskal etxek eta federaziok jaso zituzten IV. kapituluko laguntzak (gastu arruntak eta jardueren antolaketa), 782.305 euroan.



Argentinako, Belgikako, Txileko, Txinako, Espainiako, Frantziako, Uruguako eta AEBetako 27 euskal etxek eta federaziok jaso zituzten VII. kapituluko laguntzak (ekipamendua eta azpiegiturak), 120.000 euroan.

Pandemiaren ondorioz, Euskal Etxeen eta Federazioen aurrez aurreko jardueraren zati bat murriztu egin zen, eta, beraz, baliteke esleitutako kopuruak murrizteko prozedura batzuk hastea.

Gaur egun, ofizialki onartutako 197 euskal etxe eta federazio daude, 30.589 bazkiderekin.

Eragina gizartean:

Aurreko deialdietan izandako betetze maila, oro har, ona izan da. Euskal zentroek aurreikusitako xedeetarako erabiltzen dute diru laguntza. Hautemandako desbideratzeak gertatzen dira adierazle batzuk ezin direlako aurreikusi eta beste batzuk neurtzeko metodoa hobetzen delako. Euskal zentroek jaso dezaketen diru laguntza 30.000 €-ra mugatzean, banaketa bidezkoagoa bermatzen da zentro handien eta txikien artean, azken horiek askotan diru laguntzaren baitan geratzen baitira euskal kulturaren difusiorako jarduerak egin ahal izateko.

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Zenbat jarduera indartu diren (IV. kapitulua)	300	473
Inbertsioetarako laguntzen kopurua (VII. kapitulua)	10	27



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kanpoko euskal gizataldeetako pertsonen laguntza-premiei eta premia larriko egoerei erantzuteko prestazio ekonomikoak 2021erako

2.- Araua

222/2003 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, Euskal etxeei diru-laguntzak emateko deialdia arautzeko dena. Diru-laguntza horiek atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko dira

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

222/2003 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, Euskal etxeei diru-laguntzak emateko deialdia arautzeko dena. Diru-laguntza horiek atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko dira.

EBAZPENA, 2021eko martxoaren 3koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena. Honen bidez, euskal etxeei dirulaguntzak emateko 2021. urteko deialdia egiten da, atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko. (martxoaren 16ko EHAA, 54. zk.)

EBAZPENA, 2021eko martxoaren 26koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen baita atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko 2021. urtean euskal etxeei dirulaguntzak emateko deialdian aurreikusitako ebaluazio-batzordearen osaera. (apirilaren 12ko EHAA, 70. zk.)

EBAZPENA, 2021eko urriaren 29koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, euskal etxeei dirulaguntzak ematen dizkiena atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko. (azaroaren 10eko EHAA, 223. zk.)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programak prestazio ekonomikoak ematen ditu atzerriko euskal gizataldeetako pertsonen laguntza-premiei eta premia larriko egoerei erantzuteko

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Argentina (14), Txile (15), Kolonbia (1), Kuba (41), Peru (1), Uruguai (1) eta Venezuelako (10) 83 familia-unitate izan ziren deialdira bideratutako 202.000 euroen esleipendunak, eta 18 eskaera gehiago ukatu ziren kreditua agortu zelako

Eragina gizartean:

Laguntza horiek oso baliagarriak dira, eta gizarte eragin onuragarria dute kanpoan den euskal komunitatearen sektore kaltetuenetan.



6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Laguntza kopurua	100	83



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Bazkide Estrategikoen Sareko kanpoko eskualdeekin lankidetzaren teknikoan aritzeko proiektuetarako 2021-2022rako laguntzen deialdia

2.- Araua

Martxoaren 26ko 47/2019 Dekretuak arautzen du Bazkide Estrategikoen Sareko kanpoko eskualdeekin lankidetzaren teknikoan aritzeko proiektuei laguntzak ematea (2019ko apirilaren 1eko EHAA, 63. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperresteka)

47/2019 DEKRETUA, martxoaren 26koa, Bazkide Estrategikoen Sareko kanpoko eskualdeekin lankidetzaren teknikoan aritzeko proiektuei laguntzak ematea arautzen duena.

EBAZPENA, 2021eko urriaren 5ekoa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez laguntzak emateko deialdia egiten baita, Flandria, Gales eta Korsikako eskualde estrategikoekin lankidetzaren teknikoan proiektuak 2021-2022an egiteko. (urriaren 15eko EHAA, 206. zk.).

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 2koa, Europako Gaietarako zuzendariarena, zeinaren bidez bete gabe uzten baita Flandriako, Galesko eta Korsikako Europako eskualde estrategikoekin lankidetzaren teknikoan proiektuetarako 2021-2022rako laguntzen deialdia. (abenduaren 10eko EHAA, 246. zk.).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburu orokorra laguntza-lerro publiko-pribatu bat sortzea da, atzerrian estrategikotzat jotako eskualdeekin lankidetzaren teknikoan proiektuak bultzatu eta sustatzeko eta euskal interesak sustatzeko.

Flandria, Gales eta Korsikako Europako Eskualde Estrategikoetako pertsona juridikoekin egiten diren aldebiko jarduketaren eta lankidetzaren proiektuak finantzatzeko laguntzak ezarri dira, horiekin elkar ulertzeko memorandumak sinatu baitira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Ez zen eskaerarik jaso, eta deialdia hutsik geratu zen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektu kopurua	8	0